BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4908

EBAZPENA, 2014ko azaroaren 5ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako Bilboko XXXVII. Hirigintza Ikastaroan (2013-2014) eta Donostiako XXXVIII. Hirigintza Ikastaroan (2013-2014) aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldia» egiteari zenbait pertsonak uko egin diotela argitara emateko dena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2014ko irailaren 3ko Ebazpenaren bidez, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako Bilboko XXXVII. Hirigintza Ikastaroan (2013-2014) eta Donostiako XXXVIII. Hirigintza Ikastaroan (2013-2014) aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldia» esleitu zen (EHAA, 174 zk., 2014ko irailaren 15ekoa).

Donostiako XXXVIII. Hirigintza Ikastaroko ikaslea izan zen Mirari Arriola Irizar zuzenbidean lizentziatuari eta Bilboko XXXVII. Hirigintza Ikastaroko ikaslea izan zen Estibalitz Ugidos Elguezabal arkitektoari eman zitzaien praktikaldia. Lehena Zarauzko udalean eta bigarrena Bilboko udalean.

Mirari Arriola Irizarrek eta Estibalitz Ugidos Elguezabalek idazki bana aurkeztu dute, non esaten duten praktikaldiari uko egiten diotela, lan-arrazoiak direla medio, 2014ko azaroaren 1etik aurrera.

Hortaz, bada, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Mirari Arriola Irizarrek aurkeztu duen ukoa onartzea, Zarauzko udalean egiten ari zen erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldiari dagokionean.

Bigarrena.– Estibalitz Ugidos Elguezabalek aurkeztu duen ukoa onartzea, Bilboko udalean egiten ari zen erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldiari dagokionean.

Hirugarrena.– Zarauzko udalari eta Bilboko udalari ukoaren berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko azaroaren 5a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.